

# Aretxagazeta


Aretxabaleta ● 2001eko irailak 14 ● 220. zka.



## Gustu danetako oporrak

Iturririk iturri: Juane Madinabeitia • Iritzia: Amaia Zugazagasti

# horma armairuak



**tolesgarriak**

**horma armairu  
irristagarriak**

## AZKARATE AROTEGIA

Telleria, 19 B-0-2 B-0-3  
BERGARA  
Tel.: 943 76 47 19

ARETXABALETA  
Tel.: 943 77 01 24

**Ateak, leihoak,  
horma armairuak, tarimak  
eta parketak**

ARDATZA  
Brikolaketa

Masterreka, 4 behea. Tf.: 943 76 18 93 • BERGARA

**2001-2002**

## EUSKARA IKASTAROAK

### ESKAITZA

Euskalduntze maila guztiak.  
Alfabetatze.  
EGA.

Mintzamina lantzeko talde bereziak.  
Sakontze ikastaroak.

### ERRITMOAK

Ordu eta erdi, 2, 3, eta 5 ordu.

### BULEGO ORDUTEGIA

Goizez: 09:00-13:00 • Arratsaldez: 15:00-19:00

### MATRIKULATZEKO EPEA

Irailaren 3tik 21era.

Bekatze sistema eta diru laguntzak ditugu.  
16 urtetik gorakoentzat.

## LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA



### ARETXABALETA

Nafarroa, 2-4

Tel.: 943 79 21 68 • Faxa: 943 79 92 62  
leintzeuskalteg@terra.es

### ESKORIATZA

Intxaurtxueta, 10 • Tel.: 943 79 21 68



MATRIKULA ZABALIK

## Oporrak bukatu die, irailien barriro be lanera. Gogorra izeten da lanerako bueltie?



**Rosa Mari Aldai**

Ekittie gogorra da, baina bueno danera ohittuten gare. Gainera, aurretik be jakitten dou bueltan barriro be lanien hasi bihera aukikouela.




**Marga Garmendia**

Lanera etortiak eztauko bueltaik, ez dau beste auke-raik. Hala ta be, gogorra izeten da bueltia. Perezia emuten dau.



**Lorea Larrañaga**

Bai oso gogorra, asko kostetan jat barriro be lanera bueltetia. Lehenengo astia izeten da txarrena, gero barriro be ohiketan zara lehengo bizimodura.



**Juan Antonio Cruz**

Beti egoten da bueltau bihera. Nik ondo hartzen dot buelta hori. Gainera oporretan fan aurretik be banakixen bueltan zer nauken, beraz, ezin kejaui!



**Valentin Etxebarria**

Ni erretiraute nau, eta ez dot lanerako buelta hori horrenbeste igerten. Hala ta be, duda barik bakazinotan hobeto egoten da.



**Juanjo Conde**

Bai, ondiokan ez naz lanien hasi, baina ia bueltan pentsetan nau. Oporrak larreiko motzak izeten die.

## Aretxagazeta

220. zenbakia. 2001eko irailaren 14an.  
Durana 11, 151 postakutxatila.  
ARETXABALETA.  
Tel: 943 79 86 21.  
Faxa: 943 77 18 54  
e-mail: aretxagazeta@goiena.com

Argitaratzailea: Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarte.

Lehendakaria: Edorta Mendieta.

Erredakzio-kontseilua: Mireia Urbetxebarria, Goretti Ayastu, Ibon Agirre, Ana Hidalgo, Fernando Berrizbeitia.

Erredakzio arduradun eta kazetariak: Amagoia Lasagabaster, Iratxe Bengoa eta Mirari Altube.

Publizitatea: Ziortza Martin

Kolaboratzaileak: Mikel Arroiabe, M. J. Aretxaga, Joseba Lopez de Armentia, Inma Miguel, Aitor Antxia, Felis Beltran de Heredia, Rosa Del Aguilu, Amaia Berezibar, Murruxio mendi elkarte, Zaria mendi taldea, Loramendi E. E., Udala.

Banatzaileak: Aitor Urrutia, Iratxe Arbulo, Leire Otaegi.

Inprimategia: Eguzkigraf, Koop. Elk.  
Tirada: 1.500 ale.  
Aretxagazeta paper ekologikoan egiten da.  
Lege gordailua: SS378 / 94. ISSN: 1134-2609.

Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritzi-ekin.



Aretxabaletako Udala,  
Gipuzkoako Foru Aldundia eta  
Eusko Jaurlaritzako kultura  
sailaren laguntza

## BALITAKUK (Hikaz berbetan)



Mikel Arroiabe

Aretxagazeta



## ■ GELA BARRIAK KURTZEBARRI ESKOLAN

Herriko plazan Kurtzebarri eskolak zuen eraikina laister botako dute zaharberritzeko. Eskolak laborategia, tailerrak eta beste erabilera batzuetarako gelak zituen eraikin horretan. Orain gela horiek Lezama gune komertzialean kokatu dituzte. Barruan zeuden lokalak egokitu eta bertan jarri dituzte laborategi, tailer eta gainontzeko gelak. Hasi-barri duten ikasturtea behintzat hantxe emango dute kurtzebarri eskolako hainbat ikaslek.



*Antolatzaileek deia luzatzen dute etxeetan dantzariak hartzeko*

## Haur dantzarien eguna irailaren 23an ospatuko da


Haur dantzarien eguna hilaren 23an izango da. Aurreko urteetan moduan dantzariak goizeko 10:30ean elkartuko dira herriko plazan eta taldeetan banatu eta Mitarte plazan, Gernika plazan eta herriko plazan egingo dute dantzan. Ohiturari jarraituz, arratsaldean, alardea izango da.

Etxeetan dantzariak jasotzeko Gurea eta Eroskin daude izena emateko papalak eta epea hilaren 21a artekoa izango da. Antolatzaileek deia egiten dute herritarrek dantzariak bazkaltzera har ditzaten, gero eta jende gutxiago animatzen baita bazkaltzeko etxeetan dantzariak hartzen.

## COPRECİK RAMPGAS ENPRESA EROSI DU

MCC barruan dagoen Copreci lantokiak Italiako Rampgas enpresa erosi du. Enpresa horrek gasezko sukaldeetarako elektragailuak ekoizten ditu. Erosketa horrekin, Copreci gogor indartuko da berari dagokion merkatuan. Rampgasek urtero 1.500 milioi fakturatzen ditu eta 100 bat langile ditu bi lantoki desberdinetan banaturik.

Coprecik hurrengo lau urteetarako egindako plan estrategikoaren arabera, hazkunde handia aurreikusi du. Gainera, Mexikon, Aretxabaletan, Txekiar errepublikan eta orain Italian dituen enpresez gain, Brasilen eta Asian beste lantoki batzuk erosteko ikerketak eta negoziaketak egiten dihardu. Estrategia honekin konpetenziaren aurrean leku onean jarriko da Copreci kooperatiba.



Mitarte kalea, 17 • ARETXABALETA • Tfnoa: 79 00 00


Mitarte 9 • Aretxabaleta • Tel.: 943 79 92 01



## BASTER-ALDE JATETXEA

SASOIKO  
JAKIAK  
GIRO  
ONENEAN

Galartza auzoa Tel.: 943 79 24 58 ARETXABALETA



## SADHANA YOGA ETA PSIKOTERAPIA ZENTRUA

- Yoga
- Bioenergetika
- Psikoterapia (taldea eta indibiduala)

Lezama komertzial zentrua - Santa Kurtz, 24  
20550 ARETXABALETA -Tel.: 616 965 795

## Alkateak mehatxu gutuna jaso zuen

Anjel Bergaretxe alkateak joan den abuztuaren 20an mehatxuzko gutuna jaso zuen udaletxean. Kartazala udaletxean bertan erabiltzen diren horietako bat zen, eta Anjelen etxebizitzako helbidea eduki arren, udaletxera heldu zen gutuna. Barruan bederatzi milimetrotako parabellum bala bat, eta "hurrengoan ez duzu ikusiko, zuk eta zure senitartekoei sentituko duzue" zioen mehatxua aurkitu zuen. Gutunak Francisco Franco diktadore espainiarraren 40 zentimoko zigilu zahar bat eta GLA, Askapenerako Talde Antiterroristaren sinadura zeukan. Igorleari buruzko informazio gehaigorik ez zen inon azaltzen.

Anjel Bergaretxek gutuna jaso eta hurrengo egunean

Bergarako epaitegira jo zuen salaketa jartzera. Orduan deklarazioa egin eta bertan utzi zuen gutuna. Alkatearen esanetan, berak eta bere alderdiak, lehenago ere gerra zikinean aritutako talderen baten ekintza izan daitekeela uste dute. Horregatik, ondo pentsatu ostean, gutunaren berri medioetan argitaratu zuten joan den asteartean. Horrez gain, alkateari elkartasuna adierazteko eta gutunak dakarren mehatxua gaitzesteko Batasunak mozioa aurkeztu zuen joan den asteartean egindako ezohiko bilkuran. Mozioan besteak-beste, Anjel Bergaretxeri eta senitartekoei babes ematea eta udalaren baliabide juridiko guztiak alkatearen eskura jartzea erabaki zen. Horrez

gain, zapatu arratsaldean burutu zen "Benetako demokrazia Euskal Herriarentzat" lelopean kale bilkuran parte hartzeko deialdia luzatu zen.

### EAJ eta EAren hutsunea


Mozioa Batasuna alderdiko lau zinegotziren botuez onartu zen bakarrik. Izan ere ezohiko bilkuran ez ziren EAJ eta EAko zinegotziak azaldu. Horren ondorioz, joan den asteazkenean EAJ alderdiaren batzokia eta EAko egoitza margo hori eta gorritz estalirik azaldu ziren. Horrez gain, inguruan jarritako karretetan gogor kritikatzeko dira alderdi biak. Besteak-beste, alkateak jasotako mehatxua gaitzesteko egindako bilkuran agertu ez izana, eta ekintza horiekin



EAKo lokala margo hori-gorritz estalita

ezker abertzaleen kriminalizazioaren babesle izatea leporatzen zaie. Aretxabale-tako udal langileek, barrez, eskutitz baten bitartez euren elkartasuna adierazi eta horrelakoak gerta ez daitezkeen herriaren alde gogotsu jarrai dezan animoak eman zizkioten Anjeli.

Azkenik joan den asteartean alkateak, Batasunako udal zinegotziek eta Aitor Aranzabalek, Batasunako eskualdeko arduradunak, gutunaren inguruan gertatutakoaren balorazio bat egin zuten prentsaurrean. Ondorio bezala horrelako ekintzen aurrean EAJ-EAak izan duen erantzun koldarra azpimarratu zuen Batasuna taldeak. Horrez gain, etorkizunean arazoak konpontzeko, elkarrizketa eta elkarlanaren aldeko apostua egiten jarraituko dutela berretsi zuten.



Alkateak mehatxuzko gutuna jaso ondoren jende ugari parte hartu zuen plazan egindako kale bilkuran



ARQUERO

CONSTRULAN S.L.

ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tel.: 943 79 01 5

Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:  
Lyonel  
Arquero

Dekorazioa:  
Soraya  
Arquero

IZOTZ  
Taberna

Mitarte, 16 • Tel.: 79 73 65  
Aretxabaleta

Aretz  
taberna

Markole, 5  
Tel.: 943 79 20 14

## San Migeletarako bukatuko dira Parrokia nagusiko lan danak



San Migeletarako irekiko dira parrokia nagusiko ateak berriz ere

Atzerapen handiarekin baina parrokiako zaharberritze lanak bukatzeaz dandela adierazi du Joxe Olabek, lanen arduradunak. Teilatuko oholeria aldatu, hormak txukundu eta kanpoaldean egin behar zituzten lanak bukatu ondoren, otsaila inguruan hasi ziren barrualdean txukuntze lanak egiten. Besteak beste, megafonia sistema barritu, argizatzea aldatu eta berogailu sistema garbiago bat jarri dute. Lan horiek dagoeneko egin dituzte. Orain altare nagusia jarri, irudiak bere lekuetara

bueltatu eta horma guztiak margotzen ari dira dena txukun uzteko. Lan hauek ondo joanez gero, San Migeletan zabalduko dira parrokia nagusiko ateak.

Korueta Santiago elizan, bestalde, oraintxe hasiko dira berriz ere lanak. Erretaula pipiak jota dagoela-eta, herriko parrokiak Foru Aldundiak konpontzeko eskatu zion orain hilabete batzuk. Horrela diru laguntza guztiak lortuta, laister ekingo diote Santiagoren bizitza irudikatzen duen erretaula konpontze-ari.

## ARIZMENDI IKASTOLAREN EGITURAKETA


Arizmendi ikastolak 2001-2002 ikasturterako eskaintza aurkeztu zuen irailaren 6an. Ikastolako kudeatzaileriek, ikasleek Haur Hezkuntzan, Derrigorrezko Hezkuntzan, Batxilergoan eta Lanbide Heziketan zein aukera izango dituzten azaldu zuten. Felix Ormaetxea Arizmendiko zuzendariak bestalde, Arizmendi ikastola ikasturte barri honetatik aurrera MCC barruan izango dela iragarri zuen. Arizmendik, gaur egun 3.000 ikasle baino gehiago ditu.

## ELKARTASUN ERAKUSTALDIA MURRUKIXON

Datorren irailaren 21ean eta 22an, kanpamendu desberdinetan bizi diren Saharuar errefuxiatuekiko elkartasun jardunaldiak egingo dira. Eguakotx arratsaldean hasi eta zapatu ilunkara bitartean Saharuar herriaren historia eta errefuxiatu kanpamenduen gizarte antolakuntzaren barri emango da Murruxion jarriko den erakustaldian. Horrez gai, hitzaldi bat ere emango da (ostiralean 19:00etan) eta "Jaima (kanpamenduetako etxe bizitza) bat izango da ikusgai.

## LUDOTEKA JARTZEKO LOKAL BARRIA

Uztailean egindako azken osoko bilkuran udalak Gernika plazan dagoen etxabe bat erostea onartu zuen. Bertan, oraindik erabakitzeko badago ere, ludoteka jartzeko ideia eztabaidatu zen. Izan ere, gaur egun ludoteka dagoen tokia nahiko urrun gelditzen da haurren ohiko jolaslekuetatik. Horrez gain, Otarako lokala ez da udalarena eta honek hileroko errenta pagatu beharra izaten du. Bestalde, Gernika plazan gaur egun, haur eta gazte ugari aritzen da jolasean, horregatik ludoteka barria jartzeko leku egokia dela iruditu zaio udalari. Asmo horrekin, 12. zenbakia duen etxebizitzako etxabe guztia erosi du 18 milioiren truke.



**URBALTZ**  
TABERNA

Mitarte, 21 behea  
Tfnoa.: 79 79 79  
ARETXABAETA

**IBARRA**  
estankoa



PRENTSA ETA  
IKASMATERIALA

Egunero zabalik

Bizkaia, 3 Tel.: 943 79 23 77

**Marti**

Bere bezeroen zerbitzura

Mitarte, 16  
Tel.: 943 79 01 72



### ARANTZAZURA ERROMESALDIA

Urtero letxe Aretxabaletatik erromesaldia egin zen Arantzazura iraileko lehenengo astelehenean. Herritar gehienak autobusez eta kotxez joan baziren ere, oinez joatera ausartu zenik ere izan zen, horien artean udaletxeko zinegotzi batzuk.



### EGURALDI TXARRA BAINA LAGUN UGARI KURTZEBARRIN

Kurtzebarri txapelaz estalita agertu zen domeka goizean, baina horrek ez zuen jendea atzera bota. Txamarrak aldean hartuta, lagun ugari batu zen Kurtzebarri puntan. Jesus Madinabeitiak eman zuen meza, eta ondoren, jateko eta edateko gura adina egon zen. Jendea segituan hurbildu zen janaria zegoen lekura, horren erakusgarri da goiko argazkia.

## JOSU HARATEGIA

Urdaitegia-Gozotegia  
kroasantegia  
Janari prestatuak

Mitarte, ☎ 943 77 03 08

## OSKAR GARAJEA

Tel.: 943 79 98 74  
Fax: 943 71 24 59  
Basabe Poligonoa, A-2-4

## ITURGINTZA




URA, GASA ETA KALEFAZIOA  
943 79 07 34

## GARBITU S. KOOP

*Garbiketa  
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea  
Tel: 943 79 01 28



### ZORIONAK GERMAN


German Gonzalez izan dugu aurtengo Aretxagazetako postal lehiaketako irabazlea. Germanek Errioxako Ezkarai herritik bidali zigun postala, eta bi lagunentzako afaria irabazi du.

Postala bidali diguzuen guztioi eskerrik asko eta ez etsi, hurrengo batean izango da eta.



### AGORREKO ANDRAMAIXAK ARIENTZAN

Arientzarrek giro onean ospatu dituzte auzoko jaiak. Juane Madinabeitiak eman zien hasiera jaiari kanpaiak joaz. Martin Kabarrixa zerutik begira zutela burutu ziren ospakizun guztiak. Argazkiko Julenek ere gazteena izan arren, opari ederrak jaso zituen jokuetan.



## DINAMIZATZAILEA

Loramendi Euskara Elkartek dinamizatzaile bat behar du egun erdirako, batez ere merkataritza gaia lantzeko

Interesatuok deitu 943 770970 telefonora edo eta bidali curriculum-a Aretxabaletako Udaletxe Zaharrera, Durana 11, 20.550 ARETXABALETA, Urriaren 1a baino lehen.

**loramendi**  
kultur elkartea

## MATRIKULA EPEA ZABALIK



- INFORMATIKA  
(ofimatika: Windows, Word, Excel, Access)
- MEKANOGRAFIA
- INTERNET
- ENPRESENDAKO IKASTAROAK  
(Diruz lagundutako ikastaroak langileentzat)

Zatoz gurekin  
informatika ikastera

Izena emateko telefono honetara deitu:

943 71 27 80

Aralar, 6 - 20550 ARETXABALETA





# Gemes

## edertze aretoa

EDERTASUN  
TRATAMENDU BERRIAK

*Presta ezazu zure azala  
nequari begira*

Durana, 40 2 - ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 99 18

CARITA

Zure seme alaben heziketa integrala izan dadin...  
musikarekiko sentsibilitatea  
ere garatu

Matrikulazio epea  
Irailaren 12tik 28ra



**Zatoz Musika Eskolara !**  
LEIZARRA MUSIKA ESKOLA

**i**  
Astelehenetik Ostiralera  
arratsaldeko 5etatik 7tara  
Tel-Fax: 943 79 36 50

## Kolore askotako herria

Azken urteotan Europa aldera kanpotar ugari etorri da lan eta bizimodu berri baten bila. Datozenen artean asko eta asko, ezinbestean, legez kanpo daude gure artean. Guregana erakarri dituzten arrazoiak ekonomikoak izan ohi dira gehienetan: jatorriko herrialdeetan jasaten duten miseria eta Europako herrialdeetako ongizatearen lilura. Egia esateko, 100 urte lehenago hainbat eta hainbat euskaldun Ameriketara joatera bultzatu zituzten gogo eta grina antzerakoak dituzte. Edo eta orain dela 40 urte inguru milaka espainiar Europako beste lurralde batzuetara bultzatu zituztenak.

Azken hamarkadetan Europako herrialdeek, Espainiar Estatua barne, lan mundurako inmigrazioaren beharrik ez zegoelako ustetan, bere ateak itxirik izan dituzte eta honek inmigrazioaren kriminalizatzea eragin du, ondorio txar hauekin, besteak beste: baztertze soziala eta arrazakeria, legez kanpoko kontratazioak eta esplotazioa eta gaur egun denok lotsarazten gaituen gizaki trafikoa erabiltzen duten mafien fenomenoak.

Alabaina, Europako estatuak konturatu ari dira beharrezkoa dela ateak irekitzea, etorkinen uholdea gera ezina baita, eta, bestalde, inmigrazioak gizartearen garapenerako onura handiak ekar ditzakeelako. Espainiar Estatuan, hain estua izateagatik ezaguna egin den "Atzerritarren Legea" lehuntzeko eginaletan dabilta. Europar Batasunean berriz, araudi komunitarioa eztabaidan dago. Beti bezala neurri hauek berandu eta indar gutxirekin datoz.

Aldaketa sakonak ekarriko dituzten lege berriak behar ditugu, etorkinen onartze politika arautzeko ezezik, baita gizartearen integratuak izan daitezen ere. Horretarako ezinbestekoa da atzerritarrek bertakoen eskubide berberak izatea eta, azken pausu bezala, arlo politikoan ere parte hartzeko eskubidea.

Ate joka datozkigunekiko gure jarrera pertsonala ere aldatu behar gaude, laster begien aurrean kolore askotako herria izango baitugu. Dudarik gabe, beraien alde eginiko ahaleginaren ordainez gizarte biziagoa eta kultura aberats eta anitzagoa izango ditugu.

Amaia ZUGAZAGASTI



**M**

**MEMESA**

**Industri hornidurak**

Tel.: 943 71 24 11  
Fax: 943 71 21 19  
ARETXABALETA

**HAURRIK**



**UMEENDAKO  
MODA**

Lezama merkatal  
zentrua, 15  
943 77 14 86

**MAITE**  
**ileapaindegia**

Sarasate, ☎ 943 79 59 05  
ARETXABALETA

**ZARAIA  
TABERNA**

Goizeko 5,30etatik  
zure zerbitzuan

Tel.: 943 79 88 95  
**MANTEKA ANAIK**

*Arientzako Jose Juaki-  
ñena baserrikoa da  
Juane Madinabeitia.  
Gaztetan monagilo  
izandakoa, azkar  
ikasi zuen kanpaiak  
jotzen. Orain, urtero  
Arientzako Agorreko  
Andramari jaietan jo-  
tzen ditu gaztetan  
ikasitako kanpai jotze  
mota guztiak.*



## Juane Madinabeitia Arientzako kanpai jotzailea

■ **Non ikasi zenuen kanpaiak jotzen?**

■ Hementxe Arientzan ikasi nuen kanpai jotzen. Zortzi urte nituela hasi nintzen monagillo, eta orduan nire lana izaten zen kanpaia jotzea. Tio Luxiok irakatsi zidan orain dakidan guztia. Denborarekin, beharbada ikasitakoa zertxobait aldatzen joan naiz, baina bestela tiok erakutsi zidan modu berdinean jotzen ditut gaur egun elizako kanpaiak. Monagilo moduan zortzi urte eman nituen, beraz, praktika edarra hartu nuen.

■ **Zenbat kanpai jotze mota ezagutzen dituzu?**

■ Arientzako jaietan 14 modutan jo nituen kanpaiak. Hil kanpaiak, sutearenak, errepikak... Baina, beste bat ere ezagutzen dut, konjuruaren kanpaiak izena dauka-

te. Hala ere, gaur egun ahaztuta daukat nola jotzen zen, ez dut gogoratzea lortu.

■ **Eta zer da konjuruaren kanpaia?**

■ Ni txikia nintzenean jotzen zen konjuruaren kanpaia. Oreixa edo ekaitza zertorenean, zerua ilun-ilun jartzen zen eta abadeak orduantxe eskatzen zidan konjuruaren kanpaia jotzeko. Txingorra egin ez zezan jotzen genuen. Bitartean abadeak elizpera urten eta otoitzak eta bedeinkazioak esaten zituen.

■ **Zein kanpai jotze dira jotzeko zailenak?**

■ Duda barik errepikak. Urtean bi aldiz jotzen ditut bakarrik eta praktika falta haundia daukat. Arientzako jaietan jo nituenean ere,

ez nintzen bat ere gustura gelditu. Trebetasun haundia behar da errepikak ondo jotzeko.

■ **Gaur egun erabiltzen dira kanpai jotze desberdin horiek?**

■ Ez oso gutxi, Atxabaltan, auzoetako elizkizunetan jotzen dira kanpai luzeak eta eliza barrura sartzeko beste kanpai batzuk, baina bestela oso gutxi erabiltzen dira. Hil kanpaiak ere, oraindik jotzen dira leku askotan. Gainontzekoak, pena da, baina desagertuta daude dagoeneko. Gainera, orain, eskuz kanpaiak jotzen dakitenak oso gutxi gelditzen dira.

■ **Zuri zein da gehien gustatzen zaizuna?**

■ Errepikak gustatzen zaikit gehien, zailenak dira,

baina politenak ere eurak dira.

■ **Zure familian beste inork ikasi du kanpaiak jotzen?**


■ Bai, nire beste bi anaiek ere badakite, baina ez nik beste.

■ **Eta jarraitzalerik badaukazu, norbaiti erakutsi diozu dakizun guztia?**


■ Loba batek pixkat badaki, baina gaur egun kanpaiak jotzen ez direnez, ez dauka gehiago ikasteko aukerarik.

■ **Pena ematen dizu kanpaiak jotzeko ohitura galtzea?**

■ Bai, niri asko gustatzen zait, eta pozik jotzen ditut kanpaiak Arientzako jaietan. Ohitura polita da eta galtzeko zorian dago, horrek pena izugarria ematen dit.



# **GARBIGAILUA** **ETA GERO,** **DEBAGOIENEAN** **EZER EZ DA** **BERDIN**





# Oporretako azken kontuak

*Atzean gelditu ziren oporrak. Eguneroko errutinan sartu gara, eta Aretxabaletak ere betiko normaltasuna berreskuratu du.*

*Hala ta be, oraindik oporretako kontuak barra-barra dabilta herritarren ahotan. Opor ostean lagunekin elkartu eta oporren nondik-norakoak galdetzea normala izaten da. Badakigu herritarrak munduan zehar ibili direla, batzuk inguruan beste batzuk mun-*

*duko beste puntan, horrela erakutsi digute gure egoitzara heldu diren postalek.*

*Oporrak aitzaki hartuta, hiru lagunen bidaiak kontatuko ditugu gaurko erreportajearen. Alberto Asensio Australia aldean ibili da, mota guztietako paisaje eta animalien artean. Alberto Etxebarriak Madagaskarren bisitakoa kontatu digu, eta Maria Doloresek Europako erdialdeko herrialdeak ezagutu ditu.*

## Alberto Asensio

**"Mota danetako paisaje eta animaliak ikusi ditugu Australian"**

Alberto Asensio Australia igaro ditu bere aurtengo opor egunak, danera 32. Herrialde horrek betidanik erakarri izan du, eta Aitor Bengoa koadrilako laguna han zegoenez, aukera ona zela pentsatu zuen hara joateko.

Hemendik bakarrik joan zen arren, han beste hiru lagunekin elkartu eta furgoneta batean zeharkatu dute Australia, iparraldetik hegoaldera, kontinentearen erdi-erdiatik. Milaka eta milaka kilometro egin dituzte, baina merezi izan du. Australia horren haundia izanik, paisaje oso desberdinak eta klima desberdina izan dute. Orain negu negua da Australian, baina ez dute hotz haundirik pasatu. "Gauetan sakua eta forro polarrarekin lo egin dugu batzuetan, baina egu-



*Desertuaren erdi-erdian dago Uluru izeneko harri haundia*

nean zehar niki hutsean ibili gara".

Mota guztietako paisajek ikusi dituzte. Oihanetik hasi eta deserturaino, tartean Euskal Herriko paisajearen oso antzeko bat ere bai. Jakina, Australiako Uluru desertuko mendi gorria ere bisitatu zuten, eta benetan harrigarria iruditu zitzaion.

Inguru ederrak ikustez gain, han dauden animalia

mordoa harrigarria iruditu zaio. "Denetik ikusi dugu: koalak, milaka eta milaka kanguro, baleak, izugarrizko muskerrak, sugak eta mota guztietako txoriak. Hemen kakatuak eta loritak ikustea arraroa da, baina han kokoteraino bukatzen duzu eurekin, batzuetan lorik ere egiten uzten ez dizutelako ateratzen duten zaratarekin. "Animalia ugari eta jendea ere mundu

guztikoa ikusi dute", herrialde kosmopolita da Australia eta kolore guztietako arrazak ikusten dira".

Australiaz maiteminduta bueltatu da, eta penaz etorri da hain haundia izanik, hilabete dena ezin daitekeelako ikusi. Hurrengo batean bueltatzeko aitzakia du horrela, baina kontua da, joaten den leku guztietatik etortzen dela berriz bueltatzeko gogoekin.

## Maria Dolores Akixu

"Europari buelta polita eman diogu lau urtetan"

Aurten laugarren aldia da Maria Dolores Akixu herri mailan antolatzen den bidaiari Europa aldera joan dela. "Orain lau urte Aretxagazetan irakurri nuen parrokiatik bidaiari antolatzen zela Londresera. Bidaiatzeko eta lekuak ezagu-

tzeko modu egokia iruditu zitzaidan, eta ordutik urtero urtero errepikatu dugu". Horren aurretik hemen inguruan ibiltzen ginen oportetan, Euskal Herrian. Eta modu honetan Europako leku ugari ezagutu ditugu, "Europari buelta polita

eman diogu". Aurten Pragan eta Alemanian izan dira besteak beste. Praga zoragarria iruditu zaion arren, jende asko aurkitu dute bertan. Horregatik beharbada Alemaniako herri batzuk gehiago gustatu zaizkio, Baden Baden, Nuremberg...

Autobusean kilometro ugari egiten dituzten arren, ez zaio gogorra egin. Gainera oso ondo moldatzen dira taldean. "Gauden lekuan gaudela gure inguruan zarata egoten da beti". Dantza berezi bat ere egiten dute taldeko batzuek, eta edozein lekutan dantzan hasteko arazorik ez dute izaten. Taldeko gehienak atxabaltarrak dira, baina urtero kanpoko batzuk ere joaten dira. Askok eta askok urtero errepikatzen dute, ondo pasatzen duten seinale.



Berlinen Reichstag parlamentuaren aurrean argazkia atera zuten

## Alberto Etxebarria

"Norbait hiltzean sekulako festa egiten dute"

Alberto Etxebarria ezagutzen dutenek badakite bidaiari aparta dela. Askotan ibili izan da hara eta hona, eta ondo ezagutzen ditu dagoeneko munduko hainbat herrialde.

Aurtengo oporrak beste hiru lagunekin pasa ditu Albertok Madagaskarren. Toki turistikoetatik ihesean, Afrikako irla izugarri horretan murgiltzea pentsatu zuten abuztuaren lehenengo egunetan. Bidaiari gehienak moduan, ahalik eta gauza gehien ikustera joan ziren eta horretarako auto bat hartu zuten



Madagaskarreko malayo etniako umeak

errentan Antananaribon, Madagaskarreko hiriburuan. Autoarekin hegoalderuntz zeuden herrixka eta paraje guztiak ikusi zituzten. Herrixka txikietan gelditu eta hango jendea ezagutzea izan da Albertoren tzako esperientziarik politena. Bere esanetan, hango jendea oso jatorra da. Ika-

tza eginez bizi dira, eta baso ugari erreta badituzte ere, paisaje zoragarriak ikusi dituztela kontatu digu: "Gu joan ginenean negua zen han, eta urtaro horretan baleak joaten dira umea edukitzera hango itsasoetara. Nik aukera izan nuen baleak gertutik ikusteko eta esperientzia

polita izan zen".

Janariak ere asko harritu du Alberto. "Cebu izeneko behiak dituzte eta horien okela jaten dute. Okela bikaina benetan". Arraina probatu ondoren hau ere okelaren parekoa zela komentatu zuen.

Ohiturei dagokienez, hiletetan egiten duten errituan parte hartzeko aukera izan zuten. "Norbait hiltzean sekulako festa egiten dute, edaria eta janaria egoten da guztientzako. Gainera familiak festa egiteko dirurik ez badu, gorpua lurrean sartu eta behin dirua dutenean, gorpua berriz atera eta orduan egiten da hileta errittoa."

Madagaskar albora utzita, Alberto Etxebarria dagoeneko hasia da hurrengo oporretan egingo duen bidaiari pentsatzen.



### Piraguismoa

Itsasora piragua urteera antolatu du piraguismo sailak. Murruxiko elkarte-ko piraguismo sailak Mundakara piragua urteera antolatu du datorren zapatarako. Taldearen asmoa Mundaka, Laida eta Laga inguruan piraguan ibiltzea da. Olatuetan ibiltzeaz gain, Izaro uharteari ere itzulia egingo diote.

Bestalde, piraguismo sailak jakinarazi digunez, lau urtetan arduradun lanak egin dituen Oier Aranzabalek kargua utziko du. Taldeak oraindik ez du arduradun barria aukeratu, baina hortan dihardu. Zuzendari barriak besteak beste federazioko gaien ardura izango du.



### Futbito

Usurbilgo txapelketako finalaurrekoa jokatu dute Errasti anaiek. Datorren zapatuan Usurbilgo txapelketako final aurrekoa jokatuko dute Errasti anaiek. Partidua gaueko 20:00etan hasiko da, eta aurkariak Erroizenea-Elizondo izango dira. Unai eta Ibon Errastik urte askotan jokatu izan dute Usurbilgo txapelketa eta baita bi bider irabazi ere. Iaz eta orain hiru urte txapeldun izan ziren.

Gainontzeko txapelketei dagokienez, irailean hasiko da elkarte arteko pilota txapelketa. Oraindik eguna zehaztu barik dagoen arren, bertan jokatuko dute herriko kadete, jubenil eta senior mailako pilotariaek.



### Txirrindularitza

San Migeletako txirrindulari proba Mendiolan amaituko da aurten ere. Irailaren 30ean ospatuko da San Migeletako txirrindulari proba. Udazkeneko kriteriumaren barruan, aurreko egunean Urnietan korrituko dute txirrindulariek. Domekan, barrez, bi proba egingo dira gurean. Goizean 58,5 kilometrotako ibilbidea egin beharko dute juniors mailako txirrindulariek. Lasterketa Durana kalean hasiko da goizeko 10:00etan eta Mendiolan bukatuko da 11:25 aldera. Arratsaldean, barrez, erlojuz kontrakoa jokatuko da. Hemen sailkapen orokorreko lehenengo 21 txirrindulariek hartuko dute parte.



### Mendia

Felix Iñurrategi-Baltistan fundazioa lanean hasita dago. Orain hilabete batzuk Felix Iñurrategi-Baltistan fundazioa sortzeko lehen urratsak ematen hasi zen lagun talde bat. Euren helburua, Felixen nahiak jarraituz, Pakistango Baltistan eskualdean garapen ekonomiko eta kulturala bultzatzea zen, eta hori bideratzeko fundazioa jarri zuten martxan. Fundazioak lehen urratsak eman ditu dagoeneko, Felix Iñurrategi mendi eskola sortu da, eta horrez gain Machulu herri-ura ekartzea izango da beste asmoetako bat. Fundazioaren aurkezpen ofiziala, barrez, urrian egingo da jaialdi baten bitartez.



Zure gogoko kirola egiteko behar duzun material guztia.

Hemendik aurrera, markarik onenak eta zerbitzurik profesionalena oso hurbil izango dituzu.

Garbái Etorbidea 2-6 • ARRASATE-MONDRAGON

**SPORTLAND**  
FORUM SHOPS

KIROLA ZEURE ESKURA





Udako preferentea Berioaren aurkako partiduen aurretik

## Udako preferenteak garaipenaz hasi du denboraldi barria

Udako preferenteak garaipenarekin ekin dio denboraldi barriari. Joan den domekan etxean jokaturako partiduan 3-1 nagusitu zitzaion Berio, Donostiako taldeari.

Etxeko taldeak partidua bikaina jokatu arren, galtzen hasi zen lehenengo minutuan. Hala ere, Udako taldea nagusi izan zen zelaian eta 43. minutuan Erikok partidua berdintzea lortu zuen. Bigarren gola partiduko bigarren zatian etorri zen. Hau ere Erikok

sartu zuen. Azkenik, Andonik penaltiz sartu zuen hirugarrena. Enrique Nietoren mutilek partidua bikaina jokatu zuten, eta gol aurrerak ere ugari izan zituzten. Hurrengo partiduari dagokionez, Trintxerperen aurka kanpoan jokatu dute.

Preferentearekin batera Euskal ligako jubenilek ere hasi dute denboraldia. Tolosaren aurka neurtu zituzten indarrak eta galdu egin zuten 3-2. Datorren astebukeraren Zaramaga hartuko dute etxean.

Gainontzeko taldeek hila- ren 23an izango dute ligako estreineko partidua.

### Jokalari barriak

Denboraldi barriari begira aldaketa batzuk izan ditu Udako nagusien taldeak. Jokalari barriak Mikel Sanchez bergararra, erregionaletik igo den Pildain atezaina eta jubeniletatik igo den David Canas arrasatearra dira. Bajen artean, barrez, Jonan Larrinaga, Mendi-aratx, Angel atezaina eta Richard daude.

### ENPRESA BARRIA ARDURATUKO DA KIROLETXEKO ZERBITZUAK EMATEAZ

Datorren astelehenean aurrera kiroletxeko zerbitzuak eskaintzeaz Garapen proiektua izeneko Eibarreko enpresa arduratuko da. Enpresa horretako langile bi izango dira kiroletxean gimnasia mota desberdinak emango dituztenak: mantentze gimnasia, adinekoendako gimnasia eta gimnasia terapeutikoa. Azken urteetan Kiroletek enpresak eman izan du zerbitzu hori, baina uztailaren aukeraketa barri bat egin zen, eta Garapen proiektua enpresa izan zen aurkeztutako hiru enpresen artean aukeratu. Aerobic zerbitzua, barrez, Pili Muñagorri ematen jarraituko du datorren bi urteetan zehar.

Kiroletxeko instalazioak eta zerbitzuak, bestalde, martxan daude irailaren hasieratik. Kirol zerbitzuen artean aerobic-a, gimnasia mota desberdinak, igeriketa, aquagym-a, karatea... eskaintzen ditu aurretik ere kiroletxeak.

Gogoratu, bestalde, kantxako eta gainontzeko instalazioak erabiltzeko asmoa duzuenok, hiru hila-betero egiten dela zozketa eta hau iraila bukaeran egingo da.

“ARINSA”

**Aretxabaletako industrialdea S.A.**

Basabe poligonoa “EO-10”  
Tel.: 943 79 62 80/Fax: 943 79 76 19

*Okindegia - Gozolegia*

*Aretxabaleta*

Loramendi, 6 - ☎ 943 77 17 19

Basabe, 2 - ☎ 943 77 00 81


Aretxabaleta

Bertako okina

*Elenak 27 urte ditu, arrasatearra da eta Artano tabernan lan egiten du. Sukaldari ikasketak egin zituen, eta sukaldea asko gustatzen zaion arren, zerbitzari lana ere atsegin du. Bere lan barriaren nondik norakoak kontatu dizkigu.*

## Elena Joaquin

### "Sukaldari lana eta tabernakoa asko gustatzen zaizkit"



#### ■ Zer moduz taberna barrian?

■ Ez ditugu egun asko egin oraindik, baina ondo, oso ondo.

#### ■ Zerbitzari lana barria da zuretzat?

■ Ez, lehenago ere ibilita nago, Arrasateko taberna batzuetan.

#### ■ Herriko plaza leku egokia da taberna zabaltzeko?

■ Bai, nik uste dut leku onenetakoa dela.

#### ■ Gogorra da tabernari lana?

■ Gustatuz gero ez da horren gogorra. Jai egunik ez duzunez, horregatik da beste lan batzuk baino gogorragoa.

#### ■ Zer da lan horretatik gehien gustatzen zaizuna?

■ Bezeroekin harremana izatea.

#### ■ Zein da ordurik gogorrena tabernan?

■ Eguerdi ingurua, kafeak hartzeko ordua.

#### ■ Zein da gehien edaten den edaria?

■ Freskagarriak.

#### ■ Zein motako edariekin ateratzen da etekin gehien?

■ Kafeekin, askotan kopa ere eskatzen delako.

#### ■ Garagardoa ala konbinatua?

■ Konbinatua, zerbeza ez zait gustatzen.

#### ■ Aretxabaletako giroa gustatzen zaizu?

■ Barria naiz hemen eta ez dut gehiegi ezagutzen.

#### ■ Zer egingo zenuke loteria tokatuz gero?

■ Tabernan egin ditugun obra danak ordainduko nituzke, eta gero alokagai jarriko nuke.

#### ■ Bota duzun azkenengo juerga?

■ Maritxutan.

#### ■ Eta jairik onenak?

■ Maritxuak asko gustatzen zaizkit, batez ere, jende asko ezagutzen delako eta mundu guztiaz berba egiten duzulako.

#### ■ Aurtengorako soinekoa gertatu duzu?

■ Bai, soineko barria jantziko dut aurten eta ilusio handia daukat.

#### ■ Kirola ikusi ala praktikatu?

■ Oso kirolzalea naiz, orain praktikatzeko denborarik ez dut arren, orain arte kirol asko praktikatu izan ditut: aerobica, tenisa, bizikleta, gimnasia erritmikoa...

#### ■ Eta guztietatik zein aukeratuko zenuke?

■ Step-a.

#### ■ Ezkonduta gero hobeto bizi zara?

■ Ez dago desberdintasun handirik, baina etxean lan asko egoten da egiteko, alde horretatik gogorra da.

#### ■ Afizioak?

■ Kirola egitea eta margotzea.

## BEIRALAN KRISTALDEGIA



- ◆ Komunerako altzari eta manparak
- ◆ Horma armairuak
- ◆ Beirate artistikoak
- ◆ Salarako mahaia
- ◆ Beirate "fusing"ean kalitate handia

Herriko plaza, 8 behea ☎ 943 79 81 78 / 6700997274



## MAPFRE Aseguroak

Errekabarren, 3  
Tel.: 943 77 11 76



## FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak  
Ongarriak- Haziak

Mitarte, 7 behea  
☎ 943 77 00 33/79 42 56



## Oporrak gogoan

Oraindik ere bat baino gehiago ikusten dut opor osteko sindromeak jota. Lasai egon behar da, barrio ere izango dituzue! Aretxagazetak dagoeneko erabaki du aurtengo postal lehiaketako irabazlea, hain zuzen ere: **German Gonzalezek** ederki goza eta dasta dezala irabazi duen afaria. Afarirako lagunik ez badaukazu, ni gertu nago, izan ere bi lagunentzako da. Aurten ere gogoan izan gaituzue, postal ugari jaso ditugu eta. Eskerrik asko bidaltzaile guztiei.

Domekan argi geratu zen oraindik ere Kurtzebarri eguna bizirik dagoela, nahiz eta lainopean ospatu zen. Hala ere, janari usainak erakarrita edo, jende asko inguratu zen ton-torrera. **Imanol Etxeberriak** salda goxoa gertatu zuen, eta zegoen eguraldiarekin txanpaina baino hobeto sartzen zen. Txorizoa eta gazta ere egon ziren jateko. Meza **Jesus Madinabeitiak** eman zuen. Aurten ere Murruxiko portatu da, jarraitu horrela!

Hiru hilabeteak kirolak erdi ahaztuta izan ditugu, baina futbolariak jada hasi dute denboraldia. **Haritz Igartua**, **Akaitz Garai** jubenil mailako ohorezko mailan arituko dira denboraldi honetan Aurrera Vitorian.

Dagoeneko talde horretan daude beste bi atxabaltar ere: **Mikel Etxabe eta Xabier Lasagabaster**.

Futbolarekin jarraituz, aurreko domekan Udako preferenteak partidu bikaina jokatu zuen. **Erikoren** bi golei eta **Andonik** sartu zuen penaltiari esker, 3-1 irabazi zion Udak Berio talde donostiarrari. Kanpotik Errealeko bi jokalarik ohi hurbildu ziren gurera. Berio taldearen entrenatzailea den **Juan Antonio Larrañaga** eta bere semearen futbol partidua ikustera hurbildu zen **Luis Miguel Arkonada**. Ibarran batu zirenek bi jokalarik ohiak gertu-gertutik ikusteko aukera izan zuten.

Futbol kontuetatik txirrindularitza kontuetara pasatuz, zapatuan Lezon korritu zuen **Asier Atxak** eta garaipena eskuratu zuen. Segi horrela!

Geldirik ez da momentu batean ere egon behar. Hala izan dadin, gogorazi nahi dizuet **San Migelak** bidean direla eta baserritar arropari hautsak kentzeko edo josteari ekiteko. Bide batez, aitatu, Beinke-Loramendi dantza ikasi gura duzuenok ikastaroa hasita dagoela. Hortaz, badakizue oporrak gogoan bai, baina lana eta festa ere bai!

*M. J. Arzak*



## LIBURU BERRIEN ZERRENDA

0 urtetik aurrera:

- Muxu lapurak / X. Etxaniz

6 urtetik aurrera:

- Quiero ser grande / U. Orlev

8 urtetik aurrera:

- Kofi itsasora bidean / J. Cillero

Gazteak:

- Ni bai ni! : Manolito berriz / Elvira Lindo

- Irene maitatzeko eskuliburua / Carlos Mosteiro. – (Apirila saria 2001)

- Mi gato Angus, el primer morreo y el plasta de mi padre / Louise Rennison

- Emma / Sophie Tasma

Nobelak:

- A orillas del río Piedra me senté y lloré / Paulo Coelho

- Bienvenida a este mundo, pequeña / Fannie Flagg

- El señor de las tinieblas / Alberto Vázquez-Figueroa

- Siempre es medianoche / Hanif Kureishi

- Locura / Patrick McGrath

- Tiza negra / Xabier Díaz Esarte

- Dios, el diablo y la aventura / Javier Reverte

- Las Virgenes del Paraíso / Barbara Wood

Komikiak:

- Ciudadano Can / Mark O'Hare

- El señor Jean, el amor, la portera / Dupuy, Berberian

- Corto Maltés en Siberia / Hugo Pratt

Kontsulta:

- Euskal estilo libururantz. Gramatika, estiloa eta hiztegia / Xabier Alberdi, Ibon Sarasola.

Joseba Lopez de Armentia

**IRAILA****15 ZAPATUA****■ PIRAGUA URTEERA ITSASORA**

Murrukixoko piraguis-mo sailak piragua urteera antolatu du Mundaka aldera. Urteera goizeko 9:00etan izango da Azbetik.

**20 EGUENA****■ ODOL EMATEAK**

Arabako odol bankukoak osasun zentruan izango dira odola ateratzeko. Ordua 16:00etatik 20:00etara.

**21 EGUAKOTXA****■ SAHARUIARREI BURUZKO ERAKUSKETA ETA HITZALDIA**

Saharuiarrei elkartasuna adierazteko erakusketa jarriko da ikusgai Murrukixoko lokalean.

Arratsaldeko 19:00etan hitzaldia emango da saharuiar herriaren historia eta kanpamenduen gizarte antolakuntzaren inguruan.

**■ KONZERTUA**

Serial Number taldeak kontzertua emango du Tolosako gaztetxean 22:00etan.

**21-22****■ SAHARUIARREI BURUZKO ERAKUSKETA**

Saharuiarrei elkartasuna adierazteko erakusketa jarriko da ikusgai Murrukixoko lokalean.

**23 DOMEKA****■ HAUR DANTZARIEN EGUNA**

Loramendi dantza taldearen eskutik haur dantzarien eguna ospatuko da herrian.

**25 MARTIZENA****■ ODOL EMATEAK**

Arabako odol bankukoak osasun zentruan izango dira odola ateratzeko. Ordua 16:15etik 20:00etara.

**28-29-30****■ SAN MIGEL JAIK****IKASTAROAK****■ BEINKE-LORAMENDI**

**DANTZA IKASTAROA**  
San Migel jaietan dantzatu-ko den Beinke-Loramendi dantza ikasteko ikastaroa antolatu du Loramendi elkarteak. Dantza ikasi gura dutenentzat hilaren 14an eta 21ean, eguakotzetan izango dira entseguak Kurtzebarri eskolako aretoan. Entsegu orokorra, barrez, hilaren 27an, egue- na, egingo da 19:00etatik aurrera herriko plazan.

**OHARRAK****■ UDALAK BOST LANGILE BEHAR DITU**

Udalak biztanleria eta etxebizitzaren erroldak barritzeko bost langile hartuko ditu. Aretxabaletan erroldatua egoteaz gain, LH2 edo baliokidea den tituluren baten jabe izan, eta EGA eduki edo euskaldun zaharra izan beharko da. Eskaerak udaletxeko erregistroan aurkeztu beharko dira irailaren 21a baino lehen.

**Angelines**  
AUTOZERBITZUA

*Frutan eta txarkuterian espezialitatea*

Mitarte, 16 • 943 79 61 42

**Mobiliario**  
**ARENAZA**

• ALTZARIAK  
• DISEINUA  
• APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

**ARETXABALETA**  
**ITURGINTZA**

Durana, 16 - Tel.: 79 17 53  
ARETXABALETA

**ANDRA MARI**  
Aholkularitza

- Fiskala  
- Kontablea  
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3  
☎ 943 79 29 26

**Zubia**



ZAPATAK, ZAPATILAK  
GERRIKOAK  
ETA POLTSAK

Mitarte 14 • ☎ 943 79 16 00  
ARETXABALETA

BITXITEGIA ERLOJUDENDA

**MIREN & ZURIÑE**  
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN KONPONKETA

Otalora, 4 (eliza aurrekaldean)

**Bereziki: Harategia**  
Urdaitegia  
Fruitategia

**IMANOL**  
**JANARI DENDA**

Gorbea kalea ☎ 943 79 05 83

## Zorion agurrak



Anjel Bergaretxe  
Irailak 14  
Zorionak eta urte  
askotarako.



Andoni Antxia  
Irailak 14  
Zorionak etxeko  
partez, batez ere  
Jone eta Julenen  
partez.



Irati Zubillaga  
Irailak 20  
Zorionak familiako-  
en partetik eta  
batez ere ahizparen  
partetik.



Markel Oskoz  
Irailak 21  
Zorionak eta muxu  
haundi bat etxeko  
partetik.



Joselu Perales  
Irailak 22  
Zorionak aitaxo  
Jone, Julen eta ama-  
txoren partez.



Jorge Bengoa  
Irailak 23  
Zorionak zure lagu-  
nen partetik eta  
besarkada haundi  
bat.



Felix Arrese  
Irailak 23  
Familixakuen partez  
zorionak.

Sail honetan norbait  
zoriondu gura baduzu  
Aretxagazetara zuzendu  
(Durana, 11) edo eta 943  
79 86 21 telefonora deitu.

## Aretxabaleta

• Almen	943 71 49 07
• Aretxagazeta	943 79 86 21
• Telebista	943 79 86 21
• Basotxo	943 77 09 81
• Euskaltegia	943 79 21 68
• Gizarte-Laguntzailea	943 79 10 00
• Hezibide Elkarte	934 79 31 32
• Industrialdea	943 79 62 80
• Institutua	943 79 79 00
• Kiroletxea	943 71 26 28
• Kultur-Etxea	943 71 10 27
• Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
• Kurtzebarri B.H.I.	943 79 57 40
• Liburutegia	943 79 10 00
• Loramendi E.E.	943 77 09 70
• Ludoteka	943 79 05 81
• Mankomunitatea	943 79 30 90
• Murruxio M.E.	943 79 93 74
• Musika Eskola	943 79 36 50
• Osasun zentroa	943 79 74 58
• Otalora	943 71 24 06
• Parrokia (Bulegoa)	943 79 18 42
• Pausoka Haur-Esk.	943 77 03 77
• Postetxea	943 79 28 31
• Santa Rita Ikast.	943 79 17 00
• Saretxo	943 71 26 56
• Taxi Geltokia	943 79 22 33
• Udal Bulegoak	943 79 10 00
• Udaltzaingoa	943 79 10 52
• Urats Gain	943 79 99 11

## Udaltzaingoa

• Arrasate	943 79 14 39
• Bergara	943 77 91 06
• Eskoriatza	943 71 44 07
• Oñati	943 78 04 11

## Larrialdiak

• SOS Deiak	112
• Eskualde-Ospitalea	943 03 53 00
• Ertzaintza	943 79 71 99
• Gurutze-Gorria	943 76 55 76
• Larrialdiak	943 46 11 11
• Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

## Garraioak

• Pesa	902 10 12 10
• Renfe (Gasteiz)	945 23 02 02
• Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15

## Txistuak • Txaloak

Nahasmen edarra sortzen zitzaion edozein auto gidari-ri argazkian azaltzen den bidegurutze horretara hel-tzean. Auto bat eskumatik, beste bat partetik, hurren-go behetik... inork gutxik jakiten zuen lehentasun zein-ek zeukan. Orain, barrez, arazoari irtenbidea eman zaio. Pasatzen uzteko bi seinale jarri dituzte zebra bidearen ondoan. Autogidariak, beraz, badakite non gelditu, eta nori eman behar dioten lehentasuna bertatik pasatzeko unean. Ekimen honegatik aste honetako **txaloak** Udalarari eman behar dizkiogu. Gainontzekooin seinale horiek eta beste guztiak errespetatzea geldit-zen zaigu.



## Jaiotakoak

■ Mireia Marcos  
Muñagorri  
Abuztuak 14

■ Mikel Pablos Pavo  
Abuztuak 22

■ Ainhoa Alonso Antelo  
Abuztuak 28



## Kurtzebarrira urteera

**I**

raileko bigarren domekan ospatu izan da Kurtzebarri eguna. Hala ere, 1951. urtean jaia aurreratu egin zen, eta abuztuko azkenengo domekan ospatu zen. Jende askok igotzen zuen orduan ere tontorrera, baina orain moduan saldarik eta txanpainik ez zen izaten goian.

Erretratuko lagunek

tontorretik bueltan Arantzazar baserriaren ondoan atera zuten argazkia, Valeriano Martinez izan zen argazkilaria. Gazte eta nagusi elkartuta jaitsi ziren menditik.

Erretratuan zutik Miren Gaztañaga, Carmen Garciaetxabe, Amaia Alberdi,

Antoni Gaztañaga, Mari Clara Axpe, Manuel Etxebarrieta, Bicente Aranbarri, Markeliñe Mendieta, Alvaro Pereda, Maria Joseba Iturrospe, Jesus Mari Martinez, Jose Mari Urzelai (Tini), Alberto Pereda.

Behean: Iñaki San Miguel, Javier Gereño, Miguel Urzelai, Miguel Igartua, Mu-



# LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

**b** **berbetan**  
HIZKUNTZ ESKOLA

Ingelesa

Frantsesa

Alemana

BERBETAN HIZKUNTZ ESKOLA

Belorrieta, 4

20550 Aretxabaleta

Tel./Fax: 943 79 00 69

Bulego ordutegia: arratsaldeko 4etatik 7etara

*Maila guztiak**(First Certificate of Cambridge, ...)**Klaseak goizez eta arratsaldez**Adin guztiak*

2001 - 2002 ikasturtea  
Matrikula EPEA: IRAILAREN 5etik 21era

**FRUITATEGIA**

Barazki  
eta frutetan  
espezialitatea

Tel.: 943 79 96 43

**ERREKABARREN****ILEAPAINDEGIA**

Tel.: 943 79 80 90

**IRUDI****URDAITEGIA**

kalitatezko  
produktuak

Tel.: 943 79 75 42

**JUANTXO****ERREKABARREN****DROGERIA**

GUSTU  
GUZTIETARAKO  
ZAPIAK

Tel.: 943 79 78 63

**LEINTZ-ROSI****OINETAKO DENDA**

ZAPATEN  
KONPONKETAK  
EGITEN DIRA



Tel.: 943 79 59 85

**MARI KARMEN****ARRANDEGIA****ITSASOKO PRODUKTUAK**

Tel.: 943 79 31 59

**MIREIA**



# Eskolara bueltan

grupo



**Amuebladora  
Mondragonesa**

a. eme. interiores  
a. eme. sukaldeak  
centro hogar mueble  
sofa leku

[www.grupo-aeme.com](http://www.grupo-aeme.com)

■ Tel.: 943 79 15 03  
■ Tel.: 943 77 14 92  
■ Tel.: 943 71 10 12  
■ Tel.: 943 77 14 92

[grupoam@grupo-aeme.com](mailto:grupoam@grupo-aeme.com)